



# EAE-KO TOKIKO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEHEN TXOSTENA (2007)

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO





**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



**Arabako Foru Aldundia**  
Hirigintza eta Ingurumen Saila  
**Diputación Foral de Alava**  
Urbanismo y Medio Ambiente



**BFA**  
**DFB**  
Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia  
Ingurumen  
Saila  
Departamento de  
Medio Ambiente



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



**EULEI**  
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



**IHOBE**  
Ingurumen Jardueterako Saretate Publikoa  
Sociedad Pública de Gestión Ambiental



EAE-KO TOKIKO  
IRAUNKORTASUNARI BURUZKO  
LEHEN TXOSTENA (2007)

**EBALUATUTAKO EKINTZA-PLANAK ETA IRAUNKORTASUN-ADIERAZLE KALKULATUAK DITUZTEN UDALERRI ETA ESKUALDE HAUEK SARTZEN DIRA TXOSTENEAN:**  
ALONSOTEGI, AMURRIO, ANDOAIN, AREATZA, ARRASATE, ARRIGORRIAGA, AZKOITIA, AZPEITIA, BAKIO, BALMASEDA, BASAURI, BEDIA, DEBABARRENA,  
DONOSTIA, ERRENTERIA, ETXEBARRI, GATIKA, GOIERRI, GORDEXOLA, GUEÑES, IGORRE, LAUDIO, LAUKIZ, LEGAZPI, LEKEITIO, LEMOA, LEMOIZ, LEZO, LOIU,  
JATABE, MUNGIA, MUSKIZ, OIARTZUN, TOLOSA, URRETXU, ZARAUTZ, ZIERBENA, ZUMARRAGA.



## EAE-KO TOKIKO IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEHEN TXOSTENA (2007)

## AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzak 2007ko ekainaren 5ean Ingurumeneko II. Esparru Programa (2007-2010) onartu zuenez, datozen lau urteetarako Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika zehaztu da. Esparru Programak ingurumenaren ibilbide-orri berria ezarri du, datozen lau urteetan arlo hauetan aurrerapenak egiteko 44 konpromiso neurgarriren bidez: klima-aldaketaren aurkako borroka, biodibertsitatea kontserbatzea, hiriguneetako ingurumen-kalitatea hobetzea, eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea.

Konpromisoak betetzat hartuko ditugu, baldin eta hurrengo belaunaldiari 2020an utziko diogun EAEn ingurumen-arazo nagusiak konpontzeko bidean badaude. Erronka handi horren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak ezinbestekotzat jotzen du euskal udalerrien rola.

Udalerriek hasten dituzten ekintzak —batez ere Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen barruan egiten direnak— funtsezkoak izango dira ingurumen-hobekuntzen helburuak lortzeko, eta, azken batean, gure herri eta hirietako bizi-kalitatea hobetzeko. Ingurumeneko Esparru Programaz gain, neurri zehatzak proposatzen dituzte funtsezko beste zenbait planek; horien artean daude etorkizuneko Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumoaren Plana (2006-2010) eta Klima Aldaketaren aurka egiteko Euskal Plana (2008-2012). Tokiko gobernua dira, besteak beste, oinarrizko sustatzaileak.

Udalerriek Tokiko Agenda 21en prozesuen bidez egin duten lanak asko lagundu du azken urteetako ingurumen-hobekuntzan. Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunaren lehen Txostena (2007) aurkeztu da.

Tokiko ekintza-planen urteko ebaluazioa sartzearen eta sendotzearen bidez Tokiko Agenda 21eko prozesuen ezarpen eraginkorra sustatzea izango da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren hurrengo urteetarako lehentasunetako bat. Beste hitzetan esanda, kalitateruntz goaz.

Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea 2002an sortu zen. 16 udalherri izan zituen sortzaile, eta udalerrien tokiko ekintza-planen ezarpena sustatzea zuen erronka, Tokiko Agenda 21 diseinatzeko fasean egindako ahaleginen jarraipen gisa. Gaur egun, 180 udalherri osatzen dute Udalsarea 21, eta beren ekintza-planak garatuz tokiko iraunkortasunaren aldeko apustu irmoa egin dute kide horiek guztiek.

Euskal udalherri asko ari dira, jada, tokiko ekintza-planak ezartzen. Horretarako, udal-kudeaketaren eremuko garapen iraunkorarekin konpromisoa hartu duten politikak jarri dituzte martxan, eta eraginkortasunez

laguntzen dute horiek udalaz gaindiko planen —hala nola Ingurumeneko Esparru Programaren (2007-2010)— helburuak betetzen. Emaizak aztertu eta 2006-2009ko Plan Estrategikoa egiteko prozesuan Udalsarea 21en jardueri buruzko hausnarketak egin ostean, udalerrriak Tokiko Agenda 21en prozesuetan egiten ari diren aurrerapenak ebaluatzeko ahalegina indartzeko beharra nabaritu zen.

Gobernatze-printzipioei jarraiki, administrazio publiko guztiak era gardenean, koherentean eta parte-hartzailean eman behar ditu bere jardueren eraginkortasunaren kontuak. Euskal udalerrriak Europako erreferentzia dira tokiko ekintza-planak diseinatzeko, eta, lehen txosten honen bidez, prozesu horien kalitatearen ikuspegia eskaini nahi dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet 36 udalerriei eta 2 eskualdeei, egin duten lanagatik eta izan duten parte-hartzeagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunaren lehen txostena (2007) egitea ahalbidetu baitute.

Urtero egingo den txosten honen helburua da udalerriei eta udalaz gaindiko erakundeei iraunkortasunaren politika publikoak zuzentzen eta egokitzen laguntzea, udalerriek detektatutako arazo nagusiak konpontzeko eta beharrak asetzeko.

Zalantzarik gabe, Udalsarea 21eko lanaren ebaluaketa egitea ahalegin handia da programan parte hartzen duten udalerrientzat, baina aukera bat ere sortzen du parte hartzeko eta ekintzen emaitzak jakin ahal izateko, bizi-kalitatea hobetzeko urrats sendoagoak eman ditzagun. Administrazioen arteko koordinazioa eta lana dira —lehen ere izan dira, eta etorkizunean, izango dira— Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko iraunkortasun-prozesuen nortasun-ezaugarri.

Azkenik, gainerako udalerrriak animatu nahi ditut lehen programa honetan parte hartu duten udalek eman dituzten urratsak ematera. Izan ere, zenbat eta udalerrri gehiagok hartu parte programan, orduan eta informazio errealagoa eta adierazgarriagoa izango dugu Euskal Autonomia Erkidegoari nahiz Lurralde Historikoei buruz.

**Esther Larrañaga**  
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta  
Lurralde Antolamendu sailburua

© IHOBE 2007

ARGITARATZAILEA: Ingurumen Jarduketarako Sozietate

Publikoa, IHOBE, S.A.

EDUKIAK: Dokumentu hau IHOBErentzat egin da Minuartia

Enea enpresaren lankidetzarekin

ARGAZKIAK: Mikel Arrazola

© Archivoa "Argazki" Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

DISEINUA: Artentraç





ITZULPENA: Elhuyar

LEGE GORDAILUA: BI-XXX-XXX






Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

#### **ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA**

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



<b>1.</b>	<b>ESPARRU OROKORRA ETA TESTUINGURUA</b>	<b>6</b>
1.1	GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020) ETA INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMA	
1.2	UDALSAREA 21	
1.3	AALBORGEKO KONPROMISOAK	
<b>2.</b>	<b>TOKIKO AGENDA 21EN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA</b>	<b>8</b>
2.1	PLANAK EZARTZEKO EREDU BATERATUA	
2.2	TOKIKO AGENDA 21EN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	
<b>3.</b>	<b>EKINTZA PLANEN ETA TA21EN EZARPEN-MAILA</b>	<b>11</b>
3.1	TOKIKO EKINTZA PLANEN EZAUGARRIAK	
3.2	TOKIKO AGENDA 21EN EZARPEN OROKORRA, JOERAK ETA IKUSPEGIAK UDALSAREAN IZAN DEN EZARPEN-MAILA PLANEN EZARPEN-MAILA EBALUATZEA	
3.3	TOKIKO AGENDA 21EN EZARPENENKO ZEHARKAKOTASUNA	
<b>4.</b>	<b>GAIKAKO ESPARRU-EKINTZAK ETA EMAITZAK, ETA AALBORGEKO KONPROMISOEN GAINENKO EKARPENAK</b>	<b>18</b>
4.1	KONTZEPTU OROKORRAK	
4.2	EZARPEN-MAILAREN IKUSPEGI OROKORRA GAI-ESPARRUKA	
4.3	LURRALDEARI BURUZKO ALDERDIAK	
4.4	BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA	
4.5	GIZARTEA ETA EKONOMIA	
<b>5.</b>	<b>BALANTZEA ETA ETORKIZUNENKO ERRONKAK</b>	<b>29</b>
5.1	TOKIKO AGENDA 21AK EZARTZEAN KALITATEAREN EBALUAZIO GLOBALA EGITEA	
5.2	ONDORIO ETA ERRONKAK 22	





## 1. Esparru orokorra eta testuingurua

Tokiko iraunkortasunari buruzko txosten honek Tokiko Agenda 21etako (TA21) ekintza-planek izan duten ezarpen-maila orokorraren lehen erradiografia dakar, eta EAEko tokiko iraunkortasunaren adierazleen garapena ere erakusten du. Txosten honekin eta gerora egingo direnekin, urtero UDALSAREA 21 sareko udalerrietako iraunkortasun-xedeak betetzen diren aztertuko da. Balorazio honekin, TA21en arrakastak eta hobetzeko esparruak detektatu nahi dira, hala, iraunkortasunerako bidea errazten joateko.

### 1.1 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa

Tokiko Agenda 21ak (TA21) ingurumen-arazoetan eragiteko tresna gisa onartzeak ekarri zuen, 2002an, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (EGIE 2002-2020). Zehazki, konpromiso hau ezarri zen: «2006rako EAEko udalerrri guztiek TA21eko Ekintza Planen diseinua izan beharko dute».

Ingurumeneko II. Esparru Programak (IEP 2007-2010) zehazten ditu Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak aldi horretarako dituen helburuak eta jarduerak, eta lan-ildo horri jarraipena eta indarra ematen dio; izan ere, bere 4 lehentasunetan sartzen du hiriguneetako ingurumen-kalitatea hobetzea. Halaber, II. IEPak herrietan iraunkortasun-politikak integratzeko eta koordinatzeko egitura estrategikoaren eginkizuna ematen dio Udalsarea 21i.

### 1.2 Udalsarea 21

Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea, 2002an sortu zen, EAEko TA21en ezarpen eraginkorra sustatzeko xedearekin. Ekintza-



planak garatzen diharduten udalek eta EAeko udalez gaindiko administrazio-maila guztietako ingurumen-sailek osatzen dute sarea.

Bigarren Plan Estrategikoan (2006-2009), **kalitatearekin duen konpromisoa** nabarmentzen du Udalsarea 21ek, eta prozesuen ebaluazioekin nahiz hobekuntzekin eta kide guztiei eskatutako jarduerekin artikulatzeko asmoa azaltzen du.

Konpromiso horren ildoari jarraiki, jarduera batzuk ere ezartzen dira, eta horien artean nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, TA21eko prozesuen kudeaketan laguntzeko zerbitzua ezartzea. Jarduera horrek iraunkortasun- eta ebaluazio-adierazleak eta planen programazioak eta berrikusteak barne hartzen ditu. Bigarrenik, EAeko Tokiko Iraunkortasunaren Behatokia ezartzea ere aipatzen da. Plataforma horren bidez, urteroko plan-ebaluazioetan eta adierazleen kalkuluetan ateratako emaitzei jarraipena egingo zaie. Plataforma hori Udalsarea 21eko MUGI21 aplikazio informatikoaren barruan dago, eta sareko idazkaritza teknikitik kudeatzen dute.

EAeko tokiko iraunkortasunaren lehen txosten honekin, kalitatearen gaineko konpromiso hori bultzatu nahi da, eta Udalsarea 21eko kide diren udalerrietako adierazleen ebaluazioa eta kalkulua martxan jartzearen eta hedatzearen ondorioz sortu da.

### 1.3 Aalborgeko konpromisoak

«Aalborgeko konpromisoak» **nazioarteko erreferentzia-esparrua** dira, EAeko tokiko agenden prozesuak hedatzeko. 2004an, Udalsarea 21ek, 110 tokiko erakunderekin batera, konpromiso horiek sinatu zituen Hirien eta Herrien Iraunkortasunerako IV. Biltzarrean (Aalborg+10). Sinadura horrekin, Udalsarea 21ek «hitzetatik ekintzetara» pasatzeko apustua berretsi zuen. «Aalborgeko konpromisoek» hamar helburu dituzte, udalerriei iraunkortasunari buruzko erabakiak hartzen nahiz neurri eta ekintza praktiko zehatzak egiten laguntzeko.

Udalsarea 21eko udalerrien ekintza-planek duten ezarpena urtero ebaluatzen da, eta azken urteko emaitzak txosten honetan agertzen dira. Hala, **Aalborgeko konpromisoak betetzeko egin den ekarpena balora dezakete** sareko kide diren udalerriek.



# 2


## 2. Tokiko Agenda 21en ebaluazioa eta jarraipena

### 2.1 Planak ezartzeko eredu bateratua

Tokiko Ekintza Planak-TA21ak udalerrientzako **kudeaketa-tresna eraginkorrak** izatea nahi du Udalsarea 21ek. Horretarako, planak ezartzeko eredu bat ezarri du, urtero egin beharreko eginkizun hauek biltzen dituena:

- IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEAK kalkulatzea
- PLANAREN EZARPENA EBALUATZEA
- Jardueren PROGRAMAZIOA

Eginkizun horiekin, **kudeaketarako urteko zikloa** ezartzen da. Ziklo horretan, planaren ezarpen-maila ebaluatzen da, eta, urte-amaieran, tokiko iraunkortasunaren adierazleak kalkulatu dira. Azkenik, lortutako emaitzak kontuan hartuta, hurrengo urtean egin beharreko jarduera zehatzak programatu dira. Hurrengo urtean jarduera horiek egiten joango dira, eta, urte-amaieran, berriro lehen aipatutako eginkizunak egingo dituzte (ikus 1. Irudia).



1. Irudia. Udalsarea 21eko TA21en kudeaketa-ereduaren eskema

Eredu horri esker, **planaren integrazio eraginkorra eta zeharkakoa** egiten da udaletan, eta, era berean, **herritarren parte-hartzea** bultzatzen da.

Tokiko ekintza-planaren indarraldia amaitzen denean, azken eginkizun bat ezartzea komeni da, **PLANA BERRIKUSTEA**, hain zuzen. Gutxi gorabehera, 5 urtean behin egiten da.


Eredu hori errazago ezartzeko, Udalsarea 21ek metodologia bateratu bat landu zuen, baita MUGI 21 aplikazio informatikoa ere. Tresna horrek Tokiko Agenda 21en kudeaketa integratua eta eraginkorra errazten du udalerrri guztietan, eta planen ezarpenean aipatutako eginkizun bakoitzerako lan-modulu espezifiko bat sartzen du (plangintza, ebaluazioa, adierazleak, programazioa). Halaber, aukera ematen du EAEko Tokiko Iraunkortasunaren Behatokiko moduluan udalerrri guztien emaitza sartzeko, aplikazioan bertan integratuta. 2007. urtearen amaieran, ehun udalerrrik baino gehiagok dute MUGI21 aplikazioa instalatua.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiak laguntzak ematen ari dira hainbat ekimenekin ekintza-planak ebaluatzeko eta adierazleak kalkulatzeko.

## 2.2 Tokiko Agenda 21en ebaluazioa eta jarraipena

Planen urteko zikloan ezarritako jarraipen-tresnek bi emaitza-mota erakusten dituzte. Alde batetik, **udalerriek egindako jarduera aztertzen da** ekintza-planen ebaluazioaren bidez, eta, beste **aldetik, Aalborgeko konpromisoak betetzen ari diren aztertzen da, tokiko iraunkortasunaren adierazleak kalkulatu.**

Urteko ebaluazio-prozesuetatik ateratako emaitzak udalerrietan nahiz udalez gairik mailatan ezar daitezke. **Udalerrietan**, ezarritako helburuak betetzen ari diren jakiteko erabiltzen da, baita udalerrri



### 2. Irudia. Tokiko Agenda 21en urteko ebaluazio-tresnak

bakoitzak besteekin alderatuta zer posizio duen jakiteko ere. **Udalez gairik mailan**, datuek udalerrietako iraunkortasun-joerak marrazten dituzte, ekintza-planen ezarpenean oro har izan den aurrerapena azaltzen dute eta udalen beharrak ere agertzen dituzte.

2006an, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak EAEko TA21en jarraipena eta ebaluazioa egiteko lehen programa jarri zuten abian. Programak laguntza teknikoak ematen du adierazleak kalkulatzeko nahiz ekintza-planen ebaluazioa eta programazioa egiteko eta berrogei . Berrogei bat udalerrrik hartu dute parte. Zifra hori bikoiztu egin zen bigarren ebaluazio- eta jarraipen-programarako; 2007ko udazkenean hasi zen.


Programak laguntza teknikoak ematen du adierazleak kalkulatzeko nahiz ekintza-planen ebaluazioa eta programazioa egiteko eta berrogei bat udalerrrik hartu dute parte. Zifra hori bikoiztu egin zen bigarren ebaluazio- eta jarraipen-programarako; 2007ko udazkenean hasi zen.

Ekimen horrekin batera, 2005az geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste programa bat ere sustatzen du; hain zuzen, Udalsarea 21eko Gipuzkoako udalerriei planen ebaluazioa egiteko laguntza teknikoak ematen die. 2006an, 12 udalerrri zeuden programa horretan, eta

bigarren ebaluazio- eta jarraipen-programan, berriz, 25 udalerrri izan ziren (2007ko udazkena).

TA21en kudeaketa- eta jarraipen-prozesuak modu bateratuan egiten dira **MUGI 21** aplikazio informatikoaren bidez; hala, udalerrietako TA21ei buruzko informazio guztia zentralizatuta gelditzen da, eta, gero, beharren arabera, emaitzen txostenak errazago eskuratzen dira.

Horrez gain, udalerrri bakoitzean lortutako emaitzak, aldi berean, idazkaritza teknikora bidaltzen dira, eta, han, MUGI 21eko Behatokiko moduluan sartzen dituzte. Behatokian sartutako emaitza horiek izan dira lehen txosten hau egiteko informazio-oinarriak.



3. Irudia. MUGI 21en eta Tokiko Iraunkortasunaren Behatokian informazioa sartzea

# 3

## 3. Ekintza planen eta tazien ezarpen-maila

### 3.1 Tokiko Ekintza Planen Ezaugarriak


Tokiko Iraunkortasunaren lehen txosten honetan azaltzen diren ekintza-planen ebaluazioak **EAEko 34 udalerritakoak dira**. Udalerririk horiek 2006ra arteko tokiko ekintza-planen ebaluazio-datuak dituzte, eta **EAEko biztanleria osoaren % 22 ordezkatzan dute**. 23 udalerririk TA21en lehen Sustapen Programan parte hartu dute. Programa hori Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu dute. Gainerako 11 udalerririk Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekintza Planak Ebaluatzen Laguntzeko Programan daude. Guztiek ere metodologia eta aplikazio informatiko (MUGI 21) berbera erabili dituzte, Udalsarea 21enak.

Lagineko udalerririk guztien tamaina oso desberdina da. Hala, 5 udalerririk 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte; 8k, 1.000 eta 5.000 artean; 16 udalerririk, 5.000 eta 15.000 artean; eta 5ek 15.000 biztanle baino gehiago dituzte. Lagin horrek, oro har, nahiko ondo erakusten du Udalsarea 21eko udalerririk profila, nahiz eta udalerririk txikiak datozen urteetan hazten joango diren.

Azterketan, modu berezian, eskualde bateko ekintza-planaren ebaluazioa ere sartu da. Plan-mota horiek ere ugaritzen joango dira datozen ebaluazioetan.

Grafikoan ikusten den moduan, ekintza-planetan sartutako ekintzen kopuruak eta udalerririk tamainak korrelazio argia erakusten dute. Horrek, itxuraz, esan nahi du planak modu koherentean egiten direla, udalen esku hartzeko gaitasunak eta baliabideak aintzat hartuta. Planen ezarpenetan sartutako agenteen kopuruak ere korrelazio argia erakusten du; horrek, bestalde,

islatzen du udalerrri handiagoetako udal-gestioaren egitura konplexuagoa dela.




1. Grafikoa. Planen batez besteko ekintza-kopurua eta inplikatutako agenteak, udalerrriaren tamainaren arabera

Bestalde, 2002 eta 2006 artean planak onartu zituzten udalerrriak biltzen ditu laginak. Beraz, udalerrri batzuek 5 urtez landu dute plana, eta beste batzuek lehen urtea dute. Halaber, 4 udalerrri plana ezartzen ari dira jada.

### EGINDAKO EKINTZEN GAIK

Planetako ekintzen gaiei dagokienez, nabarmentzekoa da gizarte-gaiei eta ekonomiakoei emandako garrantzia, guztiaren % 23,5 hartzen baitute. Izan ere, gai horiek eduki oso zabala hartzen dute (gizarte-alderdiak —gizarte-ongizatea, genero-berdintasuna, lankidetzeta, kirola, kultura, euskara— eta, neurri txikiagoan bada ere, alderdi ekonomikoak —sustapen ekonomikoa edota lan-merkatua—). Bestalde, gizarte- eta ekonomia-ingurua azkenaldiko planetan sartu izan da, eta, horregatik, ekintza gehiago zuzendu zaizkio gai horri, batez ere bigarren plana egin duten udalerrrietan; horiek egoki ikusi dute hasiera batean ingurumenaren gainekoa den TA21a zabaldu, eta gai horietara hedatzea.



2. Grafikoa. TEP-TA21eko ekintzen batez besteko banaketa, gaien arabera



## Ekintza-planen ezaugarriak



### Udalerrien tamainara eta baliabideetara egokitzea

- Planen ekintza-kopurua dauden baliabideetara moldatzen da, ekintza-kopuruaren eta udalerraren tamainaren artean korrelazio garbia gordeta.
- Korrelazio horrek ez du esan nahi planak eta horien programazioa beti baliabideetara berdin egokituta egongo direnik. Hain zuzen, desberdintasun handiak daude planteatutako xedeetan, eta horrek ezarpenaren bideragarritasunean ere desberdintasunak sortzen ditu.



### Planen formulazioa

- Planek gabezia batzuk dituzte egin beharreko programak eta ekintzak definitzeko dagokionez. Hori ebaluazio-prozesuetan azaltzen da, eta plana kudeaketarako tresna eraginkor gisa erabiltzea oztopa dezake. Beraz, datozen planen berrikusketetan hobetu beharreko alderdia da hori.
- Planek ikuspegi zabala dute, eta, beraz, iraunkortasunarekin lotutako gai askotara zuzendutako ekintzak barne hartzen dituzte. Itxuraz, banaketa arrazoizkoa da, betiere ekintza horiek noiz diseinatu ziren kontuan izanda. Hala ere, alderdi garrantzitsu batzuk ez daude gehiegi islatuta, klima-aldaketa eta kontsumo iraunkorra, kasu.

- Udalerri askok gizarte-inguruneari garrantzi handia eman diete beren planetan. Horrek garrantzi handia du bigarren plana egin duten udalerrietan, alderdi horrekin zabaltzea komeni dela ikusten dutenetan.



### Planen jarraipena

- Jada 4 udalerrik egin dute bigarren plana, eta horrek esan nahi du Ekintza Plana-TA21a kudeaketa-tresnatzat hartzen dutela, horrek dakartzan planaren egokitze beharrekin, eraginkorra izan dadin.
- Bigarren plan horiek, alabaina, batzuetan ez dituzte ondo garatu oinarritzko lan teknikoa duten diseinu-prozesuak, parte hartzeko planak edota udaleko eztabaida-dinamikak.


## 3.2 Tokiko Agenda 21en ezarpen orokorra, joerak eta ikuspegiak

### UDALSAREAN IZAN DEN EZARPEN-MAILA

2006. urtearen amaieran, **batez beste ekintza-planetako edukien % 29,3 beteta zegoen**. Batez besteko bi urte eta erdiko ezarpen-aldian, emaitza hori positiboa da, kontuan izanda planen ezarpen-aldi osoak bost urte hartzen dituela.

### PLANEN EZARPEN-MAILA EBALUATZEA

Planen ezarpen-mailak hazkunde handia izan du lehen urtean. Bigarren urtetik aurrera, hazkunde-erritmoa ez da hain handia, baina hurrengo urteetan egonkor agertzen da. Hala ere, erritmo hori planen exekuzio-egutegian ezarritako xedeetan azaldutakoa baino txikiagoa da.




3. Grafikoa. Udalsarea 21eko udalerrietan ekintza-planek izandako batez besteko hazkunde urteka

Planen ezarpena bost urtean egin behar dela kontuan izanda, eta plana betetzeko behar den erritmoa aintzat hartuta, udalerrien % 37k

bete eta gainditu ere egingo lukete aurreikusitakoa. Beste % 37 eskatutakoa baino erritmo motelagoan doaz aurrera, eta, azkenik, % 26k beharrezkoa baino askoz erritmo motelagoa dute.

Nabarmentzekoa da azken bi urteetan hasitako planetan exekuzio-erritmo handiagoa izan dela 2002. eta 2003. urteetan hasitakoetan baino. Hala, 2002ko eta 2003ko planen % 15 baino zerbait gehiago




#### 4. Grafikoa. Udalerrietako planen exekuzio-erritmoa egokitzea

Oharra: gomendatutako ezarpen-maila hartu da erreferentziazat, exekuzioaren bigarren urtean, ezarpeneko aldi osoaren amaieran planaren % 67 baino gehiago bete izateko.

ezarri da bigarren urtean, eta 2005eko planen % 30. Bestalde, bigarren ekintza-planean dauden udalerriek ere exekuzio-erritmo bizia dute. Udalerri horiek planaren ia heren bat eginga dute bi urtean. Itxuraz, bigarren planeko edukiak kudeaketara eta udalerrietako bitartekoetara hobeto egokitu dira, eta hori mesedegarri da erritmo horretarako.


Datozen urteetan beharrezkoa izango da 2005ean hasitako planen ezarpen-maila hirugarren, laugarren eta bosgarren urtean nola garatzen ari den ebaluatzea. Ebaluazio horiek berretsiko dute indarraldiaren amaieran planek ezarpen-maila egokia duten edo ez.

Bestalde, planen ezarpen-mailaren eta udalerrien tamainaren arteko korrelaziorik badagoen edo ez ere aztertu da. Alabaina, ez da lotura garbirik ikusi. Bada harreman hori, baina izaera teknikoko edo lidergo politikoko beste eragile batzuekin.



#### 5. Grafikoa. Planen batez besteko ezarpen-maila, urteka, planen hasierako urtearen arabera





**6. Grafikoa.** Planen ezarpen-maila, Geovisor-en arabera


Iturria: EAEko Tokiko Iraunkortasunaren Behatokia

Oharra: 2006rako planek lortutako ezarpen-maila adierazten du mapak, ebaluatutako 34 udalerrien kasuan. Planen exekuzio-urteak aldatu egiten dira udalerrien arabera, eta, beraz, datuak ezin dira zuzenean konparatu.

### UDALSAREA 21EKO EKINTZA-PLANETAKO JARDUEREN EXEKUZIO-EGOERA

Ekintza-planen ebaluazioak barne hartzen du planean aipatutako ekintza bakoitzaren exekuzio-egoeraren balorazioa; Udalsarea 21en metodologia bateratuan ezarritako irizpideei jarraituz egiten da. Hortik abiatuta, ekintza bakoitzari metodologiak ezarritako exekuzio-egoerako 5 kategorietako bat izendatzen zaio (ikusi . grafikoa).

Batez beste 2 urte eta erdiko exekuzioan, ebaluatutako planetan agertzen diren 3.335 ekintzen % 30 hasi gabe daude. Beste muturrean, % 7 amaituta daude, % 6 amaitzen ari dira eta % 23 aurreratuta daude. Alabaina, exekuzio-egoera hedatuena hasitakoena da, % 34 baitira. Etorkizunean, ehuneko horren garapena, funtsean, datozen urteetako planen ezarpen-mailak markatuko du.



**7.Grafikoa.** Udalsarea 21eko ekintza-planetako ekintzen exekuzio egoera

## Ekintza-planen-tazien ezarpena



### Batez besteko ezarpen-maila

• Ezarpen-maila positiboa ikusten da, baina ez da nahikoa. Batez beste 2 urte eta erdian, exekuzioaren % 29,3 gainditu da; ekintza-planen indarraldiaren ekuatorea da (5 urte irauten dute).



### Urteko batez besteko hazkunde-erritmoa

• Urteko batez besteko hazkunde-erritmoa nahikoa egonkorra da lehen urteaz geroztik; urte hura izan zen ezarpen handienekoa. Aitzitik, oro har, exekuzio-erritmoa aurreikusitako programazioa betetzeko behar denaren azpitik dago.

• Udalerrien % 37k exekuzio-erritmo egokia dute, eta gainditu ere egiten dute. Alabaina, gehienek eskatutakoa baino erritmo motelagoa dute (% 63), eta % 26ren exekuzio-erritmoa beharrezkoaren erdia edo mantsoagoa da.

• Azken bi urteetan hasitako planek goranzko erritmoa dute, aurreko urteetako erritmoa baino ia bi aldiz azkarragoa. Udalei emandako laguntza-zerbitzuak hobetu eta gehitu egin dira, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek ezarpenean laguntza gehiago jarri dituzte, eta giza baliabideak ere esleitu dira; jarduera horiei esker lortu da joera positibo hori.



### Ekintzen exekuzio-egoera eta epe motzerako aurreikuspenak


• Exekuzioaren hazkunderako aurreikuspenak positiboak dira egungo baliabideak ematen jarraitzen bada; izan ere, ekintzen % 33 hasita daude, eta % 29, aurreratuta eta/edo amaitzen.

## 3.3 Tokiko Agenda 21en ezarpeneko zeharkakotasuna

Udalek kudeatzen dituzten gai eta tresna ugarian dute eragina tokiko ekintza-planek. Ondorioz, teknikariek eta ordezkari politikoek esku hartzea ezinbestekoa da, TA21a modu eraginkorrean ezartzeko. Prozesuaren zeharkakotasuna, beraz, ebaluatu beharreko balioa da, etorkizunean hedatzen joan dadin.

**Ezarpenaren zeharkakotasun-maila** ebaluatzeko, TA21eko koordinatzaileak zuzendu ez dituen ekintzen ehunekoa (hasitako edo amaitutako ekintzena) aztertu da.

Azterketak dio beteta edo **betetzeko prozesuan dauden ekintzen % 66 ez direla TA21a koordinatzen duen sailaren ardura zuzena, eta udaleko beste sailetan ere lantzen dela.**



8. Grafikoa. EAEen ebaluatutako TEPen exekuzioaren zeharkakotasun-indizea.

Udalerrri guztietatik % 29k zeharkakotasun handia erakusten dute (% 80 baino handiagoa). Bestalde, udalerrrien % 17an ekintzen erdiak baino gehiago Tokiko Agenda 21eko koordinatzailearen esku daude.

### UDALERRIEN TAMAINA ETA ZEHARKAKOTASUNA

15.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek batez besteko zeharkakotasun-maila handia erakusten dute (% 80). Alabaina, oro har ez da ikusten korrelazio zuzenik udalerrriaren tamainaren eta zeharkakotasun-mailaren artean. Izan ere, itxuraz, zeharkakotasunak harreman estuagoa du beste eragile batzuekin, esaterako, lidergo politikoarekin edota diseinu-prozesuan izandako kalitate nahiz parte-hartze teknikoarekin.



### Planaren exekuzioan izandako zeharkakotasun-maila

#### Planaren ezarpenean udal-agenteez izandako inplikazio-maila

- Jada hasitako edo amaitutako ekintzen % 66 TA21eko koordinatzaile ez diren agenteen ardurapean daude, zati batean edo osorik. Horrek zeharkakotasun-maila handia erakusten du.
- Ekintza-planek udal-erakundeetan izan duten integrazioan zeharkakotasun-maila oso desberdinak ageri dira (% 5 eta % 98 artean daude). Halako ehuneko desberdinek erakusten dute desberdintasun handiak daudela kalitatean eta prozesu-ereduetan.



#### Zeharkakotasunarekin zerikusia duten eragileak

- Planak ezartzean zeharkakotasun handiagoa izatea, itxuraz, ez da udalerrriaren tamainaren edo sail-kopuruen araberakoa; beste eragile batzuek dute eragina, hala nola lidergo politikoak edota diseinu-prozesuko kalitate eta parte-hartze teknikoak.
- Egin diren ebaluazio-prozesuei esker, erantzukizunak hobeto banatu dira, eta planak betetzean ere erantzukizun horiek hobeto zehaztu dira. Seguruenik, zeharkakotasun handiagoa ekarriko du horrek datozen ebaluazioetan.





## 4. Gaikako esparru-ekintzak eta emaitzak, eta aalborgeko Konpromisoen gaineko ekarpenak

### 4.1 Kontzeptu orokorrak

Ekintza-planek ekintza asko biltzen dituzte, eta guztiak ere **14 gaikako ekintza-esparrutan biltzen dira**. Txostenean emaitzak errazago aurkeztu eta azaltzeko, hiru bloke bereizi dira (ikus 1. taula):

- Lurraldeari buruzkoak
- Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumen-kalitatea
- Gizartea eta ekonomia

14 esparruetako bakoitzean ekiteak, gainera, «**Aalborgeko konpromisoak**» betetzen laguntzen du. Helburu horiek funtsezkoak dira iraunkortasunerantz ekiteko. Ondorioz, gaikako esparru horietan planak nola ezarri diren ebaluatzeak, zeharka, Aalborgeko konpromisoak betetzen laguntzen die Udalsarea 21eko kide diren udalerriei. 1. Taulan Udalsarea 21eko ekintza-planen gaikako ekintza-esparruen eta Aalborgeko konpromisoen arteko korrelazioa azaltzen da. Kasu gehienetan, argi ikusten da gaikako ekintza-esparru bakoitzak Aalborgen konpromisoak betetzen laguntzen duela.

Bestalde, **tokiko iraunkortasun-adierazle** bateratuekin, gaikako esparru bakoitzean udalerrriak duen egoera eta garapena ebaluatzen da, baita gainerako udalerriekin alderatuta duten posizioa ere. Halaber, esparru horretan planaren exekuzioan egindako ahalegina udalerrrian lortutako hobekuntzarekin alderatzeko ere balio dute adierazle horiek, eta, beraz, ezarritako politiken eraginkortasuna ikusten da. 12 adierazle bateratu daude, eta laster gehiago egongo dira, berotegi-efektuko gasen inbentarioa sartuta. 1. taulan bertan

aintzat hartutako 3 gaikako blokeekin zerikusia duten adierazle bateratuak ere agertzen dira.

Halaber, udalek adierazle espezifikiko ugari dute aukeran, eta, horiekin, udalerrira eta beren ekintza-planera egokitutako ebaluazioa egin dezakete.

Duela gutxi, adierazleen sistema osatu da, udalerrri txikien behar espezifikoa egokitzeko. Edonola ere, txostenaren **erradiografia globalaren** bokazioagatik, gehiengoan erabileran soilik kontzentratzen da.

#### 4.2 Ezarpen-mailaren ikuspegi orokorra gai-esparruka

9. grafikoak, argi erradialaren forman, gaikako ekintza-planen batez besteko ezarpen-mailaren ikuspegi orokorra ematen digu, aintzat hartutako udalerrri guztietan ebaluatutako azken urtekoa.

Alde batetik, gaien araberrako ezarpen-maila konparatzeko aukera ematen du, eta, ondorioz, batezbestekoaren aurretik dabiltzanak identifikatzeko aukera ere bai. Bestalde, gai-esparru bakoitzean lortutako ezarpen-maila konpara dezakegu aurreikusitako aldirian


TEP-TA21 UDALSAREA 21EKO GAIKAKO EKINTZA-ESPARRUAK		AALBORGEKO KONPROMISOAK										EAE-KO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLE BATERATUAK
		1. GOBERNATZEKO ERAK	2. IRAUNKORTASUNERAKO UDAL-KUDEAKETA	3. ONDASUN NATURALAK	4. KONTSUMOA ETA BIZITZEKO MODUAK	5. HIRIGINTZAKO PLANGINTZA	6. MUGIKORTASUNA HOBETU ETA TRAFIKOA MURRIZTEA	7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA	8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA	9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA	10. TOKIKOTIK OROKORRERA	
LURRALDEARI BURUZKO ALDERDIAK	LURRALDEA ETA PLANGINTZA										1. Udalerrian irekita dauden eremu publikoak eta zerbitzuak 2. Lurzorua modu iraunkorrean erabiltzea 3. Herriko mugikortasuna eta garraioak 4. Garraio-azpiegiturak bideratutako eremua banatzea	
	SISTEMA NATURALAK											
	MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA											
BALIABIDE NATURALAK: HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA	URA										5. Uraren kontsumoa 6. Energiaren kontsumoa 7. Hondakinak sortzea eta kudeatzea 8. Isurketak 9. Udalerriko ingurumena kudeatzeko sistemak	
	ENERGIA											
	HONDAKINAK											
	ATMOSFERA											
	LURZORUAK											
	AKUSTIKA											
	JARDUERA EKONOMIKOAK											
	INGURUMEN-ARRISKUA											
	UDALETAKO INGURUMEN- KUDEAKETA											
GIZARTEA ETA EKONOMIA	HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA										10. Pobrezia eta gizarte-bazterketa 11. Langabezia-tasa 12. Herritarrek komunitatearekin duten asebetetzea	
	GIZARTE- ETA EKONOMIA- INGURUNEA											

1. taula. Gaikako ekintza-esparru bakoitzak Aalborgeko konpromisoetan egin duen ekarpena.

planek duten helburuen ezarpenarekin. Kasu honetan, aldi horren bi urte eta erdi hartzen ditu, ebaluatutako planak onartu zirenetik igaro den batez besteko denbora, hain zuzen.

Mugikortasunak eta garraioak, urak eta gizarte nahiz ekonomia inguruneak dute ezarpen-mailarik handiena, eta ezarritako xedea gainditu ere egiten dute. 9. grafikoan ikusten den moduan, kanpoko koroa positiboan (berdean) ageri da.

Bestalde, ingurumen-kontrolarekin lotutako alderdiek (atmosfera, akustika eta lurzorua) edota ingurumen-kudeaketarekin lotutakoek (jarduerak kudeatzea eta ingurumen-arriskua) ezarpen-maila txikia dute. Hala, bada, ezarritakoa baino ezarpen-maila txikiagoa dute, eta, ondorioz, grafikoaren beheko koroa negatiboan daude (gorrian).



9. grafikoa. Planen batez besteko ezarpen-maila, gai-esparruen arabera (2006)

## Gai-esparruen arabera ezarpen-maila



### Ezarpen-maila handiko gai-esparruak

- Mugikortasunak eta garraioak, urak, gizarte- nahiz ekonomia-inguruneak eta plangintzak nahiz hondakinek dute ezarpen-mailarik handiena. Halaber, ingurune sozioekonomikoarekin lotutako ekintzek garrantzi handiagoa dute bigarren planetan eta/edo azkenaldian diseinatutakoetan.



### Ezarpen-maila ertaineko gai-esparruak

- Herritarrak sentsibilizatzeko eta parte hartzera bultzatzeko ekintzek, ingurumen-kudeaketakoek, lurzoruei, energiari, sistema naturalei nahiz akustikari buruzkoek ezarpen-maila ertaina dute.



### Ezarpen-maila txikiko gai-esparruak

- Batez ere ingurumen-kontrolarekin zerikusia duten ekintzek, hala nola atmosferari, akustikari eta lurzoruei buruzkoek nahiz gestio administratiboa eskatzen duten alderdiekin lotutakoek (jarduerak eta arriskua) dute ezarpen-mailarik txikiena.



### 4.3 Lurraldeari buruzko alderdiak

#### AALBORGEKO KONPROMISOAK

- 3. ONDASUN NATURALAK
- 5. HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA DISEINUA
- 6. MUGIKORTASUNA HOBETU ETA TRAFIKOA MURRIZTEA
- 10. TOKIKOTIK OROKORRERA

#### IKUSPEGI OROKORRA

Ekintza-planetan, lurraldeari buruzko gai asko sartzen dira, hala nola lurraldeko esku-hartzea eta plangintza, sistema naturalak eta, azkenik, mugikortasuna eta garraiobideak.


Alderdi horiek garrantzi berezia dute tokiko iraunkortasuna bultzatzeko. Izan ere, lehenik eta behin, esparru horietan udalek eskumenak dituzte eta esku hartzeko gaitasun handia dute. Bigarrenik, lurraldeei dagokienean egindako esku-hartzeak ez du natura- nahiz eraikuntza-arloko ingurumen- eta paisaia-kalitatean soilik eragiten, baita baliabide naturalak erabiltzearen eraginkortasunean, tokiko ekonomiaren bizitasunean edota gizartearen ekitatean ere.

Zalantzarik gabe, hirigintzako plangintza udalaren esku-hartzeko elementurik adierazgarriena da. Esparru horretan, tokiko administrazioak udalaren garapena diseina dezake, eskura dituen baliabide naturalekin (lurzorua, ura, airea, energia, biodibertsitatea) eta horien erabilera eraginkorrekarekin bat etorriz.

Udalek esku hartzeko dituzten mekanismoen artean, betiere ebaluatutako ekintza-planak aintzat hartuta, hauek dira nabarmentzekoak: hirigintzako plangintzan eta kudeaketan iraunkortasun-irizpideak sartzea, obren baimenak, ekipamenduen garapena, hiriko espazio publikoen eta bideen antolaketa, garraio

publikoa ezartzea, eta espazio natural batzuk kontserbatzea eta balorizatzea.

#### GEHIEN ERREPIKATUTAKO EKINTZAK ETA EZARPEN-MAILA



10. grafikoak. Gehien errepikatzen diren ekintzak eta lurralde alderdien ezarpen-maila

Lurraldeari buruzko alderdiek planetako 3.335 ekintzen % 28 ordezkatzeko dute. Halaber, lurralde-gaietako ekintza horiek nahikoa modu orekatuan banatzen dira mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako gaien artean (% 11), baita lurraldeari eta plangintzari dagozkienetan (% 9) eta sistema naturaletan (% 8) ere.

Mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako gaiak dute ezarpen-mailarik handiena. Izan ere, nabarmen gaitzen dute TEPetako ekintza guztien batezbestekoa. Era berean, planak ezartzeko 2 urte eta erdiko eperako ezarritako helburua gaitzen du exekuzio-mailak.

Lurraldeari eta plangintzari atxikitako gaiak, halaber, planetako ekintza guztien batez besteko ezarpen-maila baino handiagoa dute, baina maila hori exekuzio-helburua baino zerbait beherago dago.



Azkenik, biodibertsitatearen gaineko ekintzak ez dira hain onak, lurraldeari buruzko gaien barruan. Horien ezarpen-maila ekintzen

batezbestekoa baino txikiagoa da; batez ere, ezarpen-helburuari dagokionean.

### IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEAK: LURRALDE-GAIK (2005)

ADIERAZLEA	BATEZ BESTEKO BALIOA	GEHIENEKO BALIOA	GUTXIENEKO BALIO	OHARRAK ETA ALDERDI GARRANTZITSUAK
<b>UDALERRIAN IREKITA DAUDEN EREMU PUBLIKOEN ETA ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA</b>				
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>irekitako eremu publikoak</b> dituzten biztanleen %	72	99,0	16,0	Gehien erabiltzen diren zerbitzuak eta ekipamenduak gertu eta erabilgarri badaude, mugikortasun motorizatu gutxiago beharko da, eta herritarrek bizitza-kalitate hobea izango dute. Parte hartu duten udalerrien artean lortutako batez besteko balioak altuak dira, baina hor bada udalerriek mesedetan izan duten eragile bat; udalerrri gehienetako informazioa inkestetako da, eta ez Informazio Geografikoko Sistemakoa. Sistema horrek emandako informazioa zehatzagoa da, eta emaitzak baxuagoak izan ohi dira. Batez besteko balioak altuak badira ere, nabarmentzekoa da udalerrri txikietan eta sakabanatuetan % 20tik beherako balioak agertzen direla; batzuetan, % 5 ingurukoak.
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>osasun-zerbitzuak</b> dituzten biztanleen %	73	92,5	18,0	
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>elikagaien establezimenduak</b> dituzten biztanleen %	78	98,0	10,3	
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>garraio publikoko geltokiak</b> dituzten biztanleen %	75	99,0	10,0	
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>edukiontzia edo birziklatzeko instalazioak</b> dituzten biztanleen %	86	100,0	6,0	
Etiket 5 minutura edo gutxiagora <b>heziketa-zentroak</b> dituzten biztanleen %	71	90,0	5,0	
<b>LURZORUAREN ERABILERA IRAUNKORRA</b>				
Udalerriaren azalera artifizialduaren %	14,0	69,8	1,2	Aztertutako udalerrien batez besteko balioa, gutxi gorabehera, EAEko batezbestekoaren bikoitza da; izan ere, laginean udalerrri handiek eta ertainek zama handia dute. EAEko lur asko ari dira artifizialtzen, eta, beraz, baliabide mugatua denez, luraren erabilera iraunkorragoa izan dadin, hirigintzako plangintza eta kudeaketaren bidez, balio hori egonkoratu nahi da.
<b>TOKIKO MUGIKORTASUNA ETA BIDAIARIEN GARRAIOA</b>				
Oinez egin ohi diren lekualdaketen %	47,1	65,8	17,8	Lortutako batezbestekoak erakusten du lekualdatze asko egiten direla oinez, eta, aldiz, garraio publikoan ez direla asko egiten. Bestalde, udalerrri gutxiak dute ingurune metropolitarrak, eta ingurune horretan izan ohi du garraio publikoak garrantzi handiagoa. Nabarmentzekoa da, halaber, ibilgailu pribatuak udalerrri txikietan eta landatarretan duen protagonismoa; % 65etik gorako balioak ageri dira.
Autoz egin ohi diren lekualdaketen %	40,1	70,5	22,4	
Garraio publikoa erabiliz egin ohi diren lekualdaketen %	10,1	26,5	2,5	



## Oharrak eta alderdi garrantzitsuak

- Lortutako emaitzek argi erakusten dute planek garrantzi handia ematen dietela mugikortasunari eta garraioari. TA21etan gai horren gaineko ekintza asko sartzen dira, ekintza guztien % 11, hain zuzen; gizarte- eta ekonomia-ingurunearen atzetik dago zifra hori. Azken gai horrek alderdi asko biltzen ditu.
- Plangintzaren fasean, garrantzi handia ematen zaio mugikortasunari, eta, gainera, ekintza asko betetzen dira; EAEn, batez beste, % 37. Balio hori, argi eta garbi, gai-esparru guztien batezbestekoa (% 30) baino altuagoa da. Hain justu, exekuzio-maila altuena duen arloa da.
- Mugikortasun-gaien ezarpen-maila ere dagokion aldirako ezarritako exekuzio-helburuaren gainera dago (% 34 da exekuzio-helburua). Ondorioz, orain artean egindako ahalegin berberak egiten bada, mugikortasun-ekintzak ondo ezarriko dira indarrean dauden planen ezarpen-aldiaren amaieran.
- Mugikortasun- eta garraio-aspektuen garrantzia, itxuraz, arazoizkoa da ekintza-planen ezarpenean egindako ahaleginetan; izan ere, EAEko administrazio guztien esku-hartzean ere arlo garrantzitsuenetakoak dira.
- Ahalegin hori egin bada ere, eta ebaluatutako udalerrietako iraunkortasun-adierazleen serie historikoak oraindik ez badaude ere, EAEko mugikortasun-adierazleek joera negatiboa erakusten dute. Horrek esan nahi du politika publikoek ahalegin handiagoa egin behar dutela, eta arlo horretan gizarte-aldaketa egin behar dela. Udalaz gaindiko administrazioek laguntza gehiago ematea ere errealitatearekin bat etorriko litzateke.

- Lurraldeari dagokionean eta hirigintzako plangintzan, nabarmentzekoa da planifikatutako ekintzek duten pisua (% 11), baita ezarpen-maila ere (% 32). Gai guztien batezbestekoa baino zertxobait altuagoa da, baina ezarpen-helburuarena baino zertxobait baxuagoa. Hirigintzako sailak TEPetako arlo horren arduraduntzat hartzeko beharra erronka izan da, eta litekeena da zailtasun horrek ezarpena bera ere mugatzea.
- Ingurune naturalari dagokionean, planifikatutako ekintzek guztien % 8 hartzen dute, baina, bestalde, ezarpen-maila oso baxua erakusten dute (% 24, planen exekuzio-aldiaren erdialdean). Ehuneko baxu horrek badu bere arrazoiak; izan ere, udalek ez dute ingurune naturalean esku hartzeko ohiturarik, eskumenak eta baliabide sendoagoak dituzten beste esparru batzuetan baino gutxiago esku hartzen dute, behinik behin. Ondorioz, arlo horretan, udalek ahalegin handiagoa egin beharko dute, eta udalaz gaindiko administrazioen babes handiagoa beharko dute. Hori hala, biodibertsitatea II. IEPko lehenetsuneko ardatz gisa hartzea eta Eusko Jaurlaritzak biodibertsitate-ekintzak ezartzeko laguntzak sendotzea mesedegarri izango litzateke ekintza horien exekuzioa handitzeko.
- Zalantzarik gabe, lurralde-gaiak funtsezkoak dira iraunkortasunaren aldeko ekintzetan; izan ere, eragin handia dute ingurumen-baliabideetan eta -kalitatean (energia-kontsumoa eta klima-aldaketa, atmosferako poluzioa eta poluzio akustikoa, uraren zikloa kudeatzea, biodibertsitatea, hirigune berdeak...), baita gizartean eta ekonomian ere. Ondorioz, planak nahiz etorkizuneko aurreikuspenak egiterakoan esku hartzeko esparru horiek guztiak aintzat hartzea bultzatu behar da.

#### 4.4 Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumen-kalitatea

##### AALBORGEKO KONPROMISOAK

2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA
3. ONDASUN NATURALAK
4. KONTSUMO ETA BIZITZEKO MODU ARDURATSUAK
7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZAK
10. TOKIKOTIK OROKORRERA

##### IKUSPEGI OROKORRA

Baliabide naturalak eta hondakinak hobeto kudeatzen eta ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzen duten ekintzak ageri dira gehien ekintza-planetan. Bloke horretan bi esparru bereizten dira; lehenean, udalak protagonismo nagusia izan dezake, eta bigarrean, aldiz, udala gainetik dituen erakunde eskudunekin lankidetzan arituko da, udalerraren gaineko informazioa eta ezagutza emanez. Hirugarren ardatz bat ere bada; hain zuzen, udalaren beraren funtzionamendua eta instalazioak girotzeko ekintzena.

Aintzat hartutakoen artean, urari buruzkoa dago. Baliabide hori modu eraginkorragoan erabiltzera eta bere ingurunera itzultzen denean kalitatea kontserbatzera bideratutako ekintzak barne hartzen ditu. Planetan sartutako ekintzetako askok ura kudeatzeko izaera hartzen dute, eta udalaz gaindiko erakundeak inplikatzeko dituzte, foru-aldundiak nahiz Eusko Jurlaritzak, esaterako.

Energiari dagokionean, udal-eraikinetan energia-iturri berriztagarriak erabiltzera bultzatzeko ekintzak daude, baita gutxiago kontsumitu eta kontrolatzera bideratutakoak ere. Halaber, etxebizitzetan energia gutxiago kontsumitzera bultzatzen duten ekintzak ere badira, gutxiago poluitzen duten energia-iturriak erabiltzearen aldekoak.

Hondakinei buruzko ekintzetan, etxebizitzetan hondakinak bereiztea sustatu eta errazten da, eta, industrian nahiz merkataritzan, hondakinak hobeto kudeatzeko egin beharreko esku-hartzea lantzen

da. Ekintza horietan guztietan, eskualdeko erakundeek eta udalaz gaindiko administrazioek lan handia egin ohi dute, kasu guztiak berdinak ez diren arren.


Lurzoruari, atmosferari eta akustikari dagokionean, ekintzak ingurumen-kontrolarekin lotuta egon ohi dira, eta udalak zuzenean nahiz udalaz gaindiko erakundeekin lankidetzan egiten ditu.

Ingurumen-arriskura eta ekonomia-jardueretara bideratutako ekintzak indarrean dagoen araudia betetzearekin lotuta daude. Araudia udalaren larrialdi-plan batekin ezar daiteke, edo, bestela, jardueren espedientea izapidetuta.

Azkenik, udalaren ingurumen-gestioari dagokionean, ingurumen-kudeaketako sistemak abian jarrita (Ekoscan, ISO 14001 eta EMAS, esaterako) eraikinak eta udal zerbitzuak girotzeko ekintzak barne hartzen dira, baita erosketak publiko berdea bultzatzen dutenak ere. Ekintza-esparru horien artean sartzen da beste administrazioekiko eta herritarrekiko koordinazioa hobetzea ere, baita udalak ingurumen-izaerako gaietara zuzendutako giza baliabideak ugaritzea ere.

gehien errepikatzen diren ekintzak eta ezarpen-maila Baliabide naturalekin, hondakinekin eta ingurumen-kalitatearekin lotutako ekintzek plan guztien % 40 ordezkatzeko dute. Halaber, aintzat hartutako 8 gai-esparruetako bakoitzeko ekintzen ehunekoak ez datoz bat. Guztien artean, urarekin (% 7), hondakinekin (% 8) eta udaleko ingurumen-kudeaketarekin (% 9) zerikusia dutenak dira nabarmentzekoak. Azken horrek udalaren girotze-ekintzak, udal-antolaketa eta TA21en gestioa barne hartzen ditu. Bestalde, atmosferarekin, akustikarekin, lurzoruarekin edota ingurumen-arriskuekin lotutako gestio- eta kontrol-aspektuek oso ehuneko txikia hartzen dute: % 1-2.

Ekintza guztien artean, uraren (% 35) eta hondakinen (% 32) gainekoek dute ezarpen-mailarik handiena, eta biek ere TEPetako ekintza guztietako ezarpen-mailaren batezbestekoa gainditzen dute. Gainera,



### IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEAK: BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA (2005)

ADIERAZLEA	BATEZ BESTEKO BALIOA	GEHIENENKO BALIOA	GUTXIENENKO BALIOA	OHARRAK ETA ALDERDI GARRANTZITSUAK
<b>URAREN KONTSUMOA</b>				
Udalerriko etxeko kontsumoa (litro/biztanle/egun)	128,6	193	102,3	Batez besteko balioak nahikoa kontsumo handia adierazten du, baina udalerrri guztietan ez da ondo kontabilizatu. 110-140 l/bizt./egun da ohiko datua, baina, batzuetan, 200 litroak ere gainditzen dira.
<b>ENERGIAREN KONTSUMOA</b>				
Udalen instalatutako energia berriztagarriak (tep/urte/udalerrri)	117	653	1,5	II. IEParen eta TA21en helburu nagusietakoa da tokiko energia berriztagarriak ugartzea. Halako energien erabilera oso desberdina da udalerrrien arabera, baina, oro har, oraindik ere oso maila baxuak ageri dira.
<b>HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA</b>				
Hirietan biztanleek egunero sortzen dituzten hondakinak (kg/bizt./egun)	1,3	1,8	1,0	Aztertutako udalerriek EAEko batez besteko hondakin-produkzioa (1,54 kg/bizt./egun) baino baxuagoa dute urte berean: 1,1 eta 1,8 kg artean biztanleko eta eguneko. Udalerrri hiritartuenek eta izaera turistikoa dutenek hondakin gehiago sortzeko joera dute. Bereizita jasotako hondakinen ehunekoa EAEko batezbestekoaren azpitik dago (% 29), eta 2006rako IEPn aurreikusitako helburuetatik urrun dago.
Bereizita jasotako hondakinen ehunekoa (%)	25,5	33,6	12,6	
<b>UDALERRIKO INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAK</b>				
Ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpen-maila (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, iraunkortasun-txostenak) (enpresa kop. udalerriko)	8,42	92	0	Udalerrietako jarduera ekonomikoetan ingurumen-irizpideak sartzea ere bultzatu behar dute TA21ek, iraunkortasunaren aldeko bidean agente ekonomikoak ere sartzeko ekimenean. Udalerrien artean eta EAEko testinguru osoarekin alderatuta desberdintasun handiak dauden arren, maila altua dago, eta halako sistemak ezartzeko joera positiboa nabari da.

urarekin lotutako ekintzen kasuan, planak ezartzeko jarritako 2 urte eta erdiko eperako ezarritako helburua (% 34) gainditzen du exekuzio-balioak. Ondorioz, ordura arte egindako ahaleginari eutsiz gero, urzikloaren gaineko ekintzek aurreikusitako ezarpen-maila izango dute 5 urteren buruan.

Energiarekin, atmosferarekin, lurzorurekin eta akustikarekin zerikusia duten ekintzek planeko ekintza guztien batez besteko ezarpen-maila baino askoz txikiagoa dute. Azkenik, jarduera ekonomikoak eta ingurumen-arriskua saihesteko tresnak kudeatzeko eta kontrolatzeko ekintzek ere ezarpen-maila txikiagoa dute.

### Oharrak eta alderdi garrantzitsuak

- Lortutako emaitzek erakusten dute hondakinak eta ura asko agertzen direla planetan. Horrek esan nahi du garrantzi handia dutela udalerrietako iraunkortasunean, eta, hondakinen kasuan, udalek eragiteko gaitasuna dutela.
- Bi kasuetan ere, arlo horietan egin da exekuzio-ahaleginik handiena. Izan ere, planetako ekintza guztiek baino batez besteko ezarpen-maila altuagoa dute, eta planaren exekuzio-erritmoa ere aurreikusitakoa baino bizkorragoa da.
- Aztertutako udalerrietako hondakinen produkzio-maila EAEko batezbestekoa baino zertxobait baxuagoa da. Oro har ageri diren joerak aintzat hartuta, maila horrek aurreikus daitekeen egonkortasuna erakusten du. Alabaina, birziklatzearen ehunekoak goranzko joera badu ere, nahikoa balio murriztua du; IEPk 2006rako ezarritako helburuaren erdia ere ez du gainditzen.
- Hondakinei dagokienean, ahalegin handia egin da, eta birziklatzean, aldiz, balio baxuak ageri dira. Horrek esan nahi du egun ezarritako politika batzuk sakondu egin behar direla, eta egokitu, eraginkorrago izan daitezen. Horrez gain, adierazle zehatz

batzuk hobetzeko, politika publikoetatik harago joatea komeni da, eta agente ekonomikoak nahiz herritarrak gehiago inplikatzeko.

- Ekintza planetan energiari emandako garrantzia ez da hain handia, eta planteatutako ekintzek ezarpen-maila txikia dute. Zalantzarik gabe, horren arrazoia da energiari dagozkion ekimen garrantzitsuenak udalaz gaindiko eskalan egiten direla. Bestalde, energia-kontsumoaren joera asko hazi da azken urteotan EAEn, eta energia berriztagarrien ekarpena oso murrizta da oraindik.
- Hori kontuan izanda, eta ingurumen-politikan erronka nagusitzat klima-aldaketaren aurreko larrialdia hartuta, komenigarria da energiaren arloko ekintzak gizarte-eskalan ere indartzea. Erronka horretan, udal instalazioetako eta ekipamenduetako energia-kontsumoa murriztea eta energia modu eraginkorrean erabiltzea ere sartu behar dira, eta energia berriztagarriak lehentasun handiko elementutzat hartu behar dira.

## 4.5 Gizartea eta ekonomia

### AALBORGEKO KONPROMISOAK

1. GOBERNATZEKO ERAK
4. KONTSUMO ETA BIZITZEKO MODU ARDURATSUAK
7. OSASUNERAKO TOKIKO EKINTZA
8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA
9. GIZARTE-EKITATEA ETA JUSTIZIA

### IKUSPEGI OROKORRA


Ekintza-planek iraunkortasunera bideratutako ekintza asko biltzen dituzte, garapen komunitarioarekin eta tokiko ekonomiaren aurrerapenarekin zerikusia dutenak. Esparru horretan ekintza-mota asko sartzen dira, guztiak ere behar eta baliabideengatik TA21eko plangintzan ohikoak diren lurralde- eta ingurumen-eremuak hedatu dituzten udalerriek egindakoak. Halaber, udalerrri horiek udalaren kudeaketa-esparru guztia hartu dute.

Gizarte- eta ekonomia-ingurunean ekintza-mota asko daude, baina nabarmenenak gizarte-ongizateari, kulturari, euskarari, lan-merkatuari eta ekonomia-dinamizazioari lotutakoak dira.

Bestalde, sentsibilizazio- eta partaidetza-esparruak kontsumo iraunkorraren aldeko heziketarekin lotutako ekintzak biltzen ditu, hondakinen, uraren edota energiaren gainekoak, esaterako; TA21ekin zerikusia duten alderdien hedapena eta komunikazioa lantzen duten ekintzak ere barne hartzen ditu; eta, azkenik, baita TA21en ezarpenean herritarrek parte hartzeko mekanismoak martxan jartzea eta indartzea jorratzen dutenak ere.

### GEHIEN ERREPIKATUTAKO EKINTZAK ETA EZARPEN-MAILA

Ekonomiaren eta gizartearen esparruak planetako ekintza guztien % 33 ordezkatzeko dute. Ehuneko hori bi zatitan banatzen da; gizartearen eta ekonomian (% 24), alde batetik, eta sentsibilizazioan eta parte-hartzean (% 9), bestetik.



12. grafikoak. Gehien errepikatzen diren ekintzak eta gizarte eta ekonomia alderdien ezarpen-maila

Gizartearen eta ekonomiaren gaineko ekintzek ezarpen-maila nahiko altua dute; TEPeke ekintza guztien batez besteko exekuzio-maila erraz gaintzen dute. Halaber, exekuzio-balioak gaintu egiten du planen ezarpen-mailarako ezarritako 2 urte eta erdiko epean lortu beharreko ezarpen-helburua. Ondorioz, orain arteko ahaleginari eutsiz gero, gizarte- eta ekonomia-inguruneke ekintzak ondo ezarriko dira indarrean dauden planen ezarpen-aldiaren amaieran.

Sentsibilizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako ekintzak batez besteko ezarpen-maila baino zertxobait baxuago daude, eta oraindik eta baxuago daude exekuzio-helburuarekin alderatuz gero. Alabaina, desberdintasun handia ikusten da sentsibilizazio-ekintzen ezarpen ugarien eta parte hartzeko ekintzen exekuzio eskasaren artean.

## IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEAK: GIZARTEA ETA EKONOMIA (2006)

ADIERAZLEA	BATEZ BESTEKO BALIOA	GEHIENEO BALIOA	GUTXIENEO BALIO	OHARRAK ETA ALDERDI GARRANTZITSUAK
<b>POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA</b>				
Oinarrizko Errentaren prestazioa jasotzen duten familien ehunekoa (%)	2,4	4,2	0,4	Hazkunde ekonomikoa agertzen den arren, Oinarrizko Errentaren prestazioa behar izan duten familia-unitateen udalerrietako ehunekoa % 0,5 eta % 4 artekoa izan da azken urteetan. Hala ere, udalerrri batetik bestera asko aldatzen da egoera.
<b>LANGABEZIA-TASA</b>				
Langabetutako biztanleria aktiboaren ehunekoa (%)	7,4	11,8	4,1	Langabezia-tasaren batez besteko balioa altua da aztertutako udalerrietan, baina desberdintasun handiak daude udalerrien arabera; % 4 eta % 12 artean dabilta datuak. Eragin handiena duten kasuak, batez ere, emakumeenak, udalerriko TA21eko ekintza-esparruetan sartu behar dira.
<b>HERRITARREK KOMUNITATEAREKIN DUTEN ASEBETETZEA</b>				
Udalerriarekin oro har duten asebetetzea (1: oso eskasa / 5 oso ona)	4,1	4,6	3,6	Herritarrek udalerriarekin duten batez besteko asebetetzea handia da, oro har, eta datuak antzekoak dira segurtasunari, natura-inguruneari eta eraikuntzei nahiz osasun- eta gizarte-zerbitzuei dagokienean. Aitzitik, etxebizitzaren eta lan-aukeren arloak dira gutxien baloratzen direnak.  Nabarmentzekoa da udalerrien tipologiaren artean ageri diren desberdintasunak. Hala, udalerrri txikiek modu positiboagoan ikusten dute natura-ingurunea, etxebizitza eskuratzea eta herritarren segurtasuna. Bestalde, kultura-zerbitzuak eta hezkuntzakoak, garraio publikoa eta lan-aukerak hobeto baloratuta daude hiriguneetan eta dimentsio handiagoko udalerrietan.
(...) etxebizitzaren kalitatea, erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna	2,6	3,4	1,8	
(...) lan-aukerak (1etik 5era)	2,7	3,8	1,8	
(...) natura-ingurunearen kalitatea eta kantitatea (1etik 5era)	3,9	4,6	3,3	
(...) eraikitako ingurunearen kalitatea eta kantitatea (1etik 5era)	3,7	4,2	3,2	
(...) gizarte- eta osasun-zerbitzuen maila (1etik 5era)	3,7	4,2	2,5	
(...) kulturako, jolasetako eta aisialdiko zerbitzuen maila (1etik 5era)	3,4	3,9	2,6	
(...) heziketa-zentroen kalitatea (1etik 5era)	3,5	4,3	2,7	
(...) garraio publikoko zerbitzuen maila (1etik 5era)	3,2	4,1	1,6	
(...) Udaleko plangintza eta erabakietan parte hartzeko aukerak (1etik 5era)	3,0	3,6	2,1	
(...) herritarren segurtasuna (1etik 5era)	4,2	4,6	3,8	

## Oharrak eta alderdi garrantzitsuak

- Gizarte-hobekuntzara eta ekonomia-aurrerapenera bideratutako ekintzek zama handia dute ebaluatutako ekintza-planetan. Izan ere, udalerrri batzuek bigarren ekintza-plana egin dute, eta alderdi horietara hedatu dira. Halaber, udalerrri batzuek antzeko garrantzia eman die lurralde- eta ingurumen-alderdiei.

- Gizarte- eta ekonomia-aspektuek ekintza-planen artean duten ehuneko asko aldatzen da. Horrek esan nahi du udalerrriak, plana kudeatzeko, behar zehatz batzuetara eta baliabide tekniko, politiko nahiz ekonomiko batzuetara egokitzen direla.

- Herritarren asebetetzeari buruzko adierazleek erakusten duten moduan, udalerrri handi eta hiritartuek behar oso desberdinak dituzte udalerrri txiki eta landatarren aldean. Lehenetan etxebizitza ez dago hain ondo baloratuta. Udalerrri txikietan, aldiz, beste alderdi batzuen balorazioa da murriztagoa, hala nola kultura- eta heziketa-zerbitzuen erabilerraztasuna, garraio publikoa edota lan-aukerak. Ondorio gisa, esan genezake planak eta Udalsarea 21 osatzen duten udalerrrietako errealitateak babeste-tresnak egokitu behar lituzketela.

- Herritarrak sentsibilizatzeko eta parte-hartzea sustatzeko ekintzek zama handia dute ebaluatutako ekintza-planetan. Datu horrekin bat etorritik, aipatu beharra dago iraunkortasunaren aldeko heziketak garrantzi handia duela TA21ak bultzatzeko, eta prozesuetan parte-hartzea sartzea ere ezinbestekoa dela.

- Sentsibilizazio-ekintzak parte-hartzearekin lotutakoak baino aurreratuago egon ohi dira. Bi eragileren ondorioa da hori. Lehenik eta behin, heziketako ekintzak babesteko ildoen erabilerraztasuna eta horri dagozkion ekimenak, eskolako Agenda 21, kasu. Eta, bestetik, parte hartzeko ekintzak aurrera eramateko zailtasunak, lidergo politiko handiagoa eta erakundeen nahiz herritarren inplikazio handiagoa eskatzen baitute.



# 5

## 5. Balantzea eta etorkizuneko erronkak

### 5.1 Tokiko Agenda 21ak ezartzean kalitatearen ebaluazio globala egitea

Prozesu eta ekintza-plan iraunkorrak, estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak eta operatiboak sortzeko egin dira Tokiko Agenda 21ak EAEn, irudian adierazten den moduan.



Egokia dirudi aintzatespen sistema guztiek Tokiko Agenda 21en prozesuak balioztatzea pentagonoaren bost erpinetarako. Ebaluazio- eta segimendu-programetara udalerrira gehiago sartuz gero, informazio gehiago lortuko da irizpide horien betetze-mailaren ebaluazio globala egiteko.

Segimenduan lortutako emaitzak ikusita, hobetzeko funtsezko punturen bat nabarmendu behar da ardatz bakoitzean:

IRIZPIDEA	BALORAZIOA
IRAUNKORRA	Iraunkortasun-adierazleen interpretazioa sustatzea, joera positiboak indartzeko eta iraunkortasun-helburuen aurkako joerak dituzten eremuetako jarduerak berri bideratzeko.
ESTRATEGIKOA	Gidaritza politikoa indartzea, eta Tokiko Agenda 21 diseinatze fasean izandako inplikazio-maila berreskuratzea.
ZEHARKAKOA	Ebaluazio- eta segimendu-fasean lortutako sailen inplikazio-maila handitzea.
PARTE-HARTZAILEA	Parte hartzeko kanalak berriro aktibatzea eta parte hartzen duten eragileen motak hedatzea, Tokiko Agenda 21en kudeaketa-zikloa aprobetxatuz.
ERAGINKORRA	Tokiko Agenda 21ak kudeaketa-tresna eragile gisa erabiltzea sustatzea eta sendotzea, planen segimenduan, adierazleen kalkuluan eta urteko jardueren programazioan oinarrituta.



## 5.2 Ondorio eta erronkak

- 1. TOKIKO AGENDA 21EKO PROZESUEN EBALUAZIOA INDAR HANDIZ** sustatzea; berrogei udalerrri inguru ditu dagoeneko, eta baliteke datorren urtean kopuru hori bikoiztea. Informazio horrek metodologia eta inguru informatiko bera ditu, eta hori urtero eskuragarri izateak erraztu egingo du tokiko eta udalaz gaindiko politikak eraginkortasunez ebaluatzea.

### 2008rako ERRONKAK

- Planen ebaluazioa sendotzea eta 2007an parte hartzen duten 34 udalerrietan adierazleak kalkulatzeko. Halaber, hurrengo urtean segimendua egiten duten udalerrien eta eskualdeen kopurua bikoiztea. Tokiko Agenda 21 eraginkortasunez kudeatzeko tresna gisa finkatzen eta etengabeko hobekuntzak izaten lagunduko du horrek.
- Aalborg-eko konpromisoari egindako ekarpenen balorazioa sartzea

### TRESNAK

- Tokiko Agenda 21en ebaluazio- eta segimendu-programak, MUGI 21ekin
- EAEko Tokiko Iraunkortasunaren Behatokia

- 2. PLANEN EZARPEN-MAILA BEHAR BEZAIN POSITIBOA IZATEA; HAIN ZUZEN ERE,** % 29,3koa, ekintza-planak indarrean jartzen direnetik bi urte eta erdira. Egiteko erritmoa egonkorra da, nahiz eta aurreikusitako programazioa osorik betetzeko nahikoa ez izan.

### 2008rako ERRONKAK

- Gidaritza politikoa indartzea, Tokiko Agenda 21eko edukiak legealdi berriko gobernu-ekintzan sartuz.
- Planetako ekintzak egiteko laguntza ekonomikoa sendotzea.

### TRESNAK

- Hautetsiek parte hartzeko eta zuzentzeko mekanismoak
- Hautetsientzako trebakuntza
- Tokiko Agenda 21etako ekintzak egiteko udalaz gaindiko laguntza-programak

- 3. UDALERRIEN ARTEKO GAUZATZE-ERRITMOAK OSO DESBERDINAK IZATEA.** Horietako % 37k eutsi egiten diote erritmo egokiari, eta gaintitu ere egin dute erritmo hori. Aitzitik, udalerrien % 26 ez da heltzen behar den erritmoaren erdira. Testuinguru horretan, nabarmendu behar da azkena ezarritako planek dutela erritmo biziena; aurreko urteetako baino bi aldiz azkarragoa, hain zuzen. Zenbait faktore izan daitezke horren eragile; esaterako, udalaz gaindiko administrazioek eta Udalsarea 21ek ematen dituzten baliabideak eta zerbitzuak areagotzea eta hobetzea.

### 2008rako ERRONKAK

- Prozesuak ezartzerakoan kalitatea pixkanaka hobetzea eta aintzatestea bere osagai desberdinak kontutan hartuz
- EAEko Tokiko Agenda 21en aurrerapenaren urteko ebaluaketa indartzea.

### TRESNAK

- Prozesuen kalitatea aintzatesteko tresnak
- EAEko Tokiko Iraunkortasunaren Txostena (2008)

- 4. PLANAK EZARTZEAN ZEHARKAKOTASUN-MAILA HANDITUZ JOATEA.** Planaren ezarpenean udal-zerbitzu askoren parte-hartzean gauzatzen da. Hala ere, zeharkakotasun hori oso desberdina da udalerrri batean eta bestean. Ez du ematen diferentziak udalerrriaren tamainaren eta sail-kopuruaren baitan daudenik, baizik eta gidaritza politikoaren eta

plana diseinatzeko prozesuaren kalitatearen eta prozesu horretako parte-hartze teknikoaren baitan.

#### 2008rako ERRONKAK

- Tokiko Agenda 21eko koordinatzaileen irudia sendotzea
- Udal-iraunkortasunaren komisioak dinamizatzea

#### TRESNAK

- Tokiko Agenda 21eko bulegoak sustatzea eta gidatzea

- 5. PLANAK UDALETAN SARTZEKO PROZESUA SAKONTZEA, EGINDAKO ebaluazio-prozesuei esker. Gainera, ebaluazio-prozesuak planaren exekuzio ardurak udal-sail desberdinen artean modu argiago batean esleitzeko aukera eman dute.**

#### 2008rako ERRONKAK

- Langile teknikarien parte-hartzea areagotzea Tokiko Agenda 21ak ezartzean eta horien segimendua egitean.
- Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren rola indartzea, berrikustean, beste zenbait udal-planen esparru integratzaile gisa.

#### TRESNAK

- Udaleko langile teknikarientzako MUGI 21en funtzioak eta aplikazioak
- Trebakuntza-jarduerak, iraunkortasunaren hainbat esparrutan

- 6. EZARTZE-MAILA OSO DESBERDINAK, ARLOEN ARABERA. ERA POSITIBOAN nabarmentzekoak dira mugikortasunari eta garraioari, ingurune sozialari eta ekonomikoari, urari eta hondakinei lotutako ekintzak. Aitzitik, batez ere ingurumen-kontrolarekin zerikusia duten ekintzek (hala nola atmosferari, akustikari eta lurzoruei lotutakoek) eta jardueren eta arriskuen kudeaketak dute ezarpen-mailarik txikiena.**

#### 2008rako ERRONKAK

- Udalerrri bakoitzaren jarduera indartzea ezartze-maila txikia duten arloetan.

#### TRESNAK

- Planen urteko programazioa

- 7. EZARTZE-MAILA ALTUEK EZ DUTE BERMATZEN ADIERAZLEEN EGOERA eta bilakaera positiboa denik; mugikortasuna da kasurik adierazgarrienetakoa. Egoera horrek iradokitzen duenez, planen alderdi batzuk sakondu eta doitu egin behar dira, eraginkorrak izan daitezten. Egoerak iradoki dezake, halaber, adierazle jakin batzuk hobetzeko nahitazkoa dela politika publikoetatik haratago joatea eta eragile ekonomikoak eta herritarrak gehiago sartzea.**

#### 2008rako ERRONKAK

- Udalerrri bakoitzeko jarduera indartzea eta doitzea, adierazleek egoera eta joera negatiboak erakusten dituzten arloetan.

#### TRESNAK

- Iraunkortasun-adierazleen urteko analisisa eta interpretazioa

- 8. EKINTZA-PLANAK EGUNERATZEKO BEHARRA. AZKEN URTEETAN AZALDUZ joan diren erronka berriei erantzun behar die, eta hasieran aintzat hartu ez ziren zenbait arlo sartzeko aukera eman behar du. Laster, planen indarraldia amaitu egingo da udalerrri askotan, eta berrikuspen hori egiteko aukera izan daiteke.**

#### 2008rako ERRONKAK

- Egiteko epea amaitzear duten planak berrikustea, erronka berriak sartzeko –esaterako, klima-aldaketa, kontsumo

iraunkorra eta biodibertsitatea–, eta eremu sozial eta ekonomikoetara hedatzea.

- Planak udal bakoitzeko beharretara eta baliabide espezifikoetara doitzuz berrikustea, eta, hala, kudeaketa-tresna gisa duen erabilgarritasuna sustatzea.

#### TRESNAK

- Planak berrikusteko metodologia komunak
- Planak berrikusteko euskarri-programak
- Ekitaldeak

- 9. HIRIGUNEETAKO ETA NEKAZARITZA-EREMUETAKO UDALERRIAK BEREIZTEKO** eskaera nabarmenak ageri dira adierazleetan lortutako emaitzetan. Hiriguneetako udalerriek baino gabezia handiagoak dituzte nekazaritza-eremuetako udalerriek; besteak beste, alderdi hauetan dituzte gabeziak: garraio publikoa, ekipamenduen eta zerbitzuen irisgarritasuna eta lan-merkatua. Aitzitik, hiriguneetako udalerriek garrantzi handiagoa dute beste zenbait alderditan: motordun zirkulazioaren ingurumen-eraginean, hondakinetan, etxebizitza eskuratzean eta abarretan.

#### 2008rako ERRONKAK

- Ekintza-planen edukia eta kudeaketa udalerrien tipologia bakoitzari egokitzea, tamaina edo ezaugarriak edonolakoak izanda ere tresna eraginkorra izan dadin.

#### TRESNAK

- Tokiko Agenda 21en kudeaketan eskualdeetako erakundeen rola sustatzea
- Udalerri txikietarako iraunkortasun-adierazleak

- 10. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUEN BIZITASUNA GUTXITZEA** planak ezartzeko fasean, diseinatzeko fasearekiko. Alabaina, parte

hartzeko prozesu nabarmenak dituzte zenbait udalerrik, eta beste zenbaitek, berriz, berriro aktibatzeke aukerak.

#### 2008rako ERRONKAK

- Tokiko Agenda 21en segimenduari buruzko komunikazioa eta adierazleak sustatzea.
- Ezartzeko fasean parte hartzeko prozesuak sustatzea, Udalsarea 21eko kide diren udalerrien esperientzia arrakastatsuak aprobetxatuz.

#### TRESNAK

- Udalerri bakoitzeko tokiko iraunkortasun-txostena
- Parte hartzeko prozesuak hobetzeko analisisien eta proposamenen azterketa





**EAE-KO TOKIKO**  
**IRAUNKORTASUNARI BURUZKO**  
**LEHEN TXOSTENA (2007)**